

ANTIFRAGIL

Bazen behin, meteorito bat Luck deitzen zena. Ez zuen ilerik, gogorra zen, zuloak zituen, lodia, baxua eta hanka motzak zituen. Begi berdeak eta handiak zituen eta oin handiak zeuzkan, beso motzak eta esku handiak ere bai.

Behin meteoritoa bere gurasoekin zegoela, planeta ezezagun bat ikusi zuen eta hura esploratzera joan zen inoren laguntzarik gabe.

Arratsalde osoa igaro zuen jolasten eta etxera joaterako orduan, ez zekien etxera nondik joan; galdu egin zen.

Orduan, meteoritoa oso triste jarri zen.

- Ez dakit zer egin! - esan zuen erdi negarrez.

Bat-batean, distira bat ikusi zuen. Perretxiko batzuk bide luze bat eginez eta esanez: Joan bide honetatik eta lagunduko dizun lagun bat aurkituko duzu. Oso misteriotsua zen baina etxera bueltatu nahi zuen eta ez zuen ezer galtzen siatzeagatik. gero, isar iheskor bat ikusi zuen eta gurazoengana joan nahi zuela esan zion. Gaua heldu zen eta gosea zuen, oso nekatuta zegoen.

Urrunean, txabola bat ikusi zuen kea botatzen ari zena. Asko poztu zen eta korrika joan zen bertan nor zegoen ikustera.

Polizia bat zegoen bere papelak sinatzen eta Lukek galdetu zion:

- Lagundu diezadakezu nire gurasoak aurkitzen?

- Noski baietz - esan zion poliziak intentzio onarekin.

Luck asko poztu zen, gurasoak aurkitu behar zituela jakinda.

**Poliziak Lucken gurasoei deitu zien eta etxera bueltatu zen.
Etxera bueltatu zenean han egoteagatik horrenbeste poztu zen,
besarkadarik handiena eman zien gurasoei eta poliziaren laguna
egin zen.**

Miki Mouse